
Zazpigarren alabaren bila

Koldo Ulibarri Orueta

(UPV/EHU - Aziti bihia)

Blanca Urgell Lázaro

(UPV/EHU)

Eskema

- Nondik atera informazioa?
 - Toponimia
 - Hondar-hitzen lekukotasuna
 - Testuak
 - Zer bilatzen dugu?
 - Arabako euskararen aurkikuntza berpasatu
 - “Arabako euskara” zer den definitu
 - Zertarako behar dugun azaldu
-

1. Toponimia


- Onomastikak ez du esanahirik
 - *Etxebarri* etxeen paradoxa
 - Garai ezberdinetako datuak ditugu
 - Toponimoak etengabe sortu eta aldatzen dira
 - *Saratxo* (XVIII. mendera arte *Derendano*)
 - Historia (zaharraren) ezagutza urria
 - Hizkuntza ezberdinak
 - Euskara, erromantzea, latina, zelta
 - Germanikoa???, iberiera???
-

1. Toponimia

- Ikertzailearen USTEAK gailentzen dira
 - Uste linguistikoak
 - *Bituri* < **bit-uri* 'bide uri'
< *betulia* 'urkien ortua' (hebraieraz)
 - *Madureta* (Lat.?); *Caicedo* (< *Cassicedo*, 1025)
 - *Olabeaga* < **Olaf(e)*+ *ager* 'Olaf-en lurraldea'
 - Uste historikoak
 - *ayala* < **ayal* < **agnal* 'arkumedun lurraldea'
 - *bilbao* < *filvano* < **filus* + *ano* 'irulearen lekua'
- Irtenbideak:
 - Toponimoaren historiaren ezagutza
 - Jatorrizko hizkuntza eta erabiltzaileen hizkuntza ezberdindu
 - Filologia ezberdinen arteko lana behar dugu
 - Zentzu komuna

1. Toponimia

- Erabil daiteke baina...



2. Hondar hitzak

- Bere horretan mantendu

- *Larri, pistia, senzai, carranca, verrojo*

DLV

carranquea, verrojua

- Aldaketa fonetikoak

- *orpila, segundilla ronchopil, arronzobi*

arraunça

- Aldaketa morfologikoak

- *Aldiquear, escuarón, zaplastazo, triscar*

triscac

- Itzulpenak

- *Dar tierra, saltamatxin*


- Norabide ezezagunekoak

- *sapo de luz, hierba santa, molleja 'yema de huevo'*

çapoa, erbasantea, corrinco 'molleja'

3. Euskal Testuak

Arabako euskal testuak (1550-1900)



1. Arabako sartaldeko azpieuskalkia

- a) A. Pozaren mikrotestuak (1587) ●
- b) Betolazaren dotrina (1596) ●
- c) F. Mendietaren testuak (c.1610) ●
- a') Orduñako Berba Zerrenda (c.1700) ●
- d) J. P. Ulibarriren testuak (1814-1840) ●
- e) Laudioko testuak (1828-1872) ●
- f) Lezamako gutuna (1888) ●

2. Arabako erdialdeko azpieuskalkia

- g) Landucciren hiztegia (1562) ●
- h) Lazarragaren testuak (c.1600) ●

3. Arabako sortaldeko azpieuskalkia

- i) Gamizen olerkiak (c.1770) ●
- j) Garcia de Albeniz (1778) ●
- j2) Luzuriagaren sermoiak (c.1790) ●

4. Jatorri ezezagunekoak

- k) Portalen poesia (1610) ●
- l) Sevillako poesia (1619) ●
- m) *Viva Jesus* (c.1640) ●
- n) Iturberen poesia (1658) ●
- o) Dotrinazko Sermoitegia (c.1770) ●

3. Euskal Testuak

- Salto diakroniko eta dialektologikoak
 - Euskara Arkaikoa (5 testu)
 - Euskara Zaharra (testu 1)
 - Lehen Euskara Modernoa (6 testu)
 - Genero ezberdintasuna
 - Hiztegia
 - Dotrinak (eta testu doktrinalak)
 - Beste eremuetara joandako idazleak
 - Ziur ez baina Arabakoak diruditen testuak
-



Zer bilatzen dugu?

“Aurkikuntza”

- Mitxelenaren “hegoaldekoa” (1958: 38)
 - Hegoaldeko hizkera ezezagun eta galdua
 - Bazter-hizkera (arkaismoak + berrikuntzak)
 - Erromantzearekiko ukipen estuan (maileguak)
 - Bizkaierarekiko kidesotasunak, baina bizkaiera ez
 - Nafarroa ez dena, baina honekin ere zenbait kidesotasun dituena
 - Arabakoa izan behar
 - Hiritarra, ergo Gasteizkoa agian
-

Mitxelena baino lehen...

■ Poza (1587)

(De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas, 18r)

- *Duero* “en **Bazcuence alabez** significa locura”

■ Larramendi (1754)

(Corografía de Guipúzcoa, 299)

- “El dialecto de Alava en lo más es el mismo de Vizcaya, **no en todo**”

■ Jose Ignazio Arana (1872)

(San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua, 201-202)

- *Eskuara sortaldekoa*

- Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea

- *Euskara sartaldekoa*


- Deba ibaitik hasita Bizkai osoa **eta Arabako zenbait herri**

- *Euskera erdikoa edo hegoaldekoa*

- Gipuzkoa, Nafarroa Garaia eta **Arabaren parte bat**

Arabako euskara Bonaparterentzat (1869)

- B-arrig
 - Laudio
 - Aiarako Luiaondo herria
- B-oroz
 - Amurrioko ekialdeko Baranbio, Lezama eta Astobitza herriak
- B-ger
 - Zigoitia
 - Legutioko gainerako herriak (Nafarrate, Goian, Urrunaga, Urbina)
- B-otx
 - Legutioko Elosu eta Legutio herria
 - Aramaioko Oleta
- B-gip (Leintz-Gatzagako aldakia)
 - Aramaio
 - Ubarrundiatik ekialderantz (Barrundiako Larrearaino)



Arabako euskara euskalki bat da?

Zuazo

- Bada (1989)
- Ez da (1998-2008)
 - Argudioak
 - Inor ez ohartu izana
 - Ezaugarri bereizgarririk eza
- Bada (2010)
 - Gasteiz “berritzegunea”

Lakarra

- Bada
 - Argudioak
 - Ezaugarrien konbinaketa berezia
 - Testuak Araban kokatu ahal izatea
 - Portal
 - Iturbe
 - *Dotrinazko Sermoitegia*
 - ...
 - Ezaugarri batzuen hedadura geografikoa




Ezaugarri baten azterketa

- **a + a > ea**
 - **Hedadura**
 - Bizkaia
 - Araba
 - Gipuzkoan Deba Ibarra, Goierri eta Urola
 - Nafarroan Burunda, Ameskoa eta Lana
 - **Indarra**
 - -ia + -a > -iea: *noviea* (Lcc), *sentenciea* (Laz)
 - -a + -au > -eau: *dageau*, *esperanzeau* (Laz)

Zer da arabera?

- Araban antzinatik hona erabili den euskara mota?
 - Araban euskaraz (berezko euskara batean) hitz egiten zelako beharrezko aitortza, azkenik ere!
- Muga politikoak gainditzen zituen “makrodialekto” bat?
 - Non hasten ziren gainerakoak (inon baziren)?
 - bizkaiera
 - gipuzkera
 - goi-nafarrera
- Ez NON bakarrik, NOIZ ere baizik



Bi baieztapen borobil

- Dialektoak ez dira *berez* existitzen
 - Dialektoak ez dira *betidanik* existitzen
-

Dialektoak ez dira berez existitzen

- Hizkuntzaz kanpoko irizpideak
 - politikoak, historikoak, geografikoak...
 - Euskalkien izenak adierazgarri
 - bizkaiera
 - gipuzkera
 - goi-nafarrera
 - lapurtera
 - behe-nafarrera
 - zuberera
 - **arabera?**
 - Ezaugarrien bidez definitzen dira
 - Abstrakzioak dira, hizkuntzaren aldakortasuna azaltzeko egiten ditugunak
 - aldakortasun diakronikoa (historian zeharkakoa)
 - aldakortasun sinkronikoa (geografian zeharkakoa)
-

Dialektoak ez dira betidanik existitzen


- Ezaugarrien mugak denboran zehar aldatuz doaz

- Aditzoina

- Edonon Mauletik Bilboraino (XV-XV. mn)
- “Eskuara sortaldekoan” (gaur)



- Euskara Batu Zaharraren ondokoak (Mitxelena 1981)

- Erdi Aroan zehar sortutakoak, VI. mendean geroz edo
- Ez ziren denak aldi berean sortu (Lakarra 2011)
 - banaketa bitarra



Lakarraren banaketa proposamena

(2011)



Laburbildurik

- Arabako euskara aztertzeke
 - datu iturriak (toponimia, hondar-hitzak, testuak)
 - jaso, sailkatu eta aztertu egin behar
 - tentuz erabili behar, aurreiritzirik gabe
 - Zer da Arabako euskara?
 - Araban hitz egiten zen euskarari ematen diogun izena
 - (Arabaren mugak gaindituz ere, agi denez)
 - Behinolako Mendebalde zabal baten hizkuntz egoeraren giltza
 - B/G oposaketa gainditzen duelako
 - **Mendebaldeko Euskara Zaharra** proposatzeko giltza
 - (eta haren berritzegunea sumatzeko ere)
-